**PAH - KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS**
**ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA**
**IRPH STOP GIPUZKOA**

Bilbao, 2015eko martxoaren 26a

**Kutxabankeko presidente den Gregorio Villalabeitia jaunari**
*A D. Gregorio Villalabeitia, presidente de Kutxabank*

**Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari**
*Al Consejo de Administración de Kutxabank*

**BBK, Vital eta Kutxa Banku-Fundazioetako patronoei**
*A los patronos de las fundaciones bancarias BBK, Vital y Kutxa*

**Erantzunkizunak dituzten alderdi eta sindikatuei: PNV, PSE-EE, PP, CCOO**
*A los partidos y sindicatos responsables: PNV, PSE-EE, PP, CCOO*

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kaleratzeak Stop eta IRPH Stop Gipuzkoa elkarteok ETXEGABETZEAK, POBREZIA ETA BERDINTASUNIK EZAREN AURKAKO OINARRIZKO NEURRIEN DEKALOGOA prestatu dugu, eta bizi dugun gizarte-larrialdi egoerak neurri horiek lehenbailehen abian jartzea eskatzen duela uste dugu. Dekalogoak eragile sozial, sindikal eta politiko ugariren babesa jasi du, eta horrek gizarteak bidegabekeria hauen aurrean duen sentsibilitatea frogatzen du.

Gasteizko Gobernuaren arabera Kutxabank da etxegabetze gehien egiten dituen banketxea, eta KALERATZEAK STOP elkarte bezala guk dugun eskarmentuaren arabera fede oneko zordunekin gupidagabeena ere bada. Horixe da gaurko egunean elkarretaratzea egiteko *zuen banketxea* aukeratu izanaren arrazoietako bat.

Bigarren arrazoia, eta nagusia: hau ez dela *zuen banketxea*, *gurea* baizik. Gizartearen ahalegin eta aurrezkiekin sorturiko Aurrezki Kutxetan oinarrituta sortu zen Kutxabank. Aurrezki Kutxa horiek zuek ahaztu egin dituzuen helburu sozialekin sortu ziren gainera. Horregatik, ondoren zehaztuko ditugun neurriak ez dira eskariak, nahitaez bete beharrekoak baizik.

ETXEGABETZEAK BERTAN BEHERA UTZI ETA BENETAN EAGINKORRA IZANGO DEN BANKU-JOKABIDE EGOKIEN KODE BAT

Baliabiderik gabeko zordunen babeserako premiazko neurrien lege-dekretu espainola guztiz eskasa da, eta Kutxabankek bere aplikazioa ere ukatu egiten du, etxebizitzaren prezioak dekretu honek ezarritako gehienekoa gainditzen duela aitzakiatzat hartuta gehienetan, jakina denean EAEn estatu espainiarreko etxebizitza garestienak ditugula, eta dekretuak berak ezartzen duenean banketxeek kode hau edozein zorduni aplika

Las plataformas Kaleratzeak Stop Desahucios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, junto con IRPH Stop Gipuzkoa, hemos redactado un DECÁLOGO DE MEDIDAS BÁSICAS CONTRA LOS DESAHUCIOS, LA POBREZA Y LA DESIGUALDAD, y creemos que la emergencia social que vivimos hace indispensable ponerlo en marcha de manera urgente. El Decálogo ha contado con el apoyo de numerosas organizaciones sociales, sindicales, y políticas, lo cual refleja la sensibilidad de la sociedad frente a estas injusticias.

Kutxabank es, según datos del Gobierno de Gasteiz, la entidad que más desahucios ejecuta, y según nuestra experiencia como STOP DESAHUCIOS la más intransigente con los deudores de buena fe. Este es uno de los motivos por el cual hoy hemos elegido la sede de *su entidad* para realizar una concentración de protesta.

El segundo, y principal motivo, es que esta no es *su entidad* sino *la nuestra*. Kutxabank fue constituida a partir de las Cajas de Ahorros creadas con el esfuerzo y ahorros de la sociedad, y con unos fines sociales que ustedes parecen olvidar. Por eso, las medidas que a continuación detallamos, no son peticiones sino exigencias.

PARALIZACIÓN DE LOS DESAHUCIOS Y CUMPLIMIENTO DE UN CÓDIGO DE BUENAS PRÁCTICAS BANCARIAS REALMENTE EFICAZ

El Decreto Ley español de Medidas Urgentes de Protección de Deudores Hipotecarios sin recursos es claramente insuficiente, y Kutxabank está denegando incluso su aplicación con la excusa recurrente de que el precio de las viviendas supera el máximo establecido por el mismo, cuando es sabido que el precio de la vivienda en la CAV es de los más altos de todo el estado español, y cuando

diezaieketela, eta baita bertan jasotzen diren neurriak hobetu ere.

Kutxabankek jokabide egokien kode eraginkor bat ezartzeko exijitzen dugu, fede oneko zordunei bigarren aukera bat emango diena. Alokairu sozialarekin edo gabe etxea ordainetan emateko egin diren eskabide guztiak eta karentziak, kitak eta zorraren berrantolaketa eskatzeko egin direnak (gure plataformetako kaltetuenak eta beste guztiak), dagoeneko ukatu direnak eta zetorkizunean egingo direnak, guzti-guztiak izan behar dute bideratuak eta onartuak fede oneko zordunentzat.

Gainera, epaitegietan abian jarriak izan diren exekuzio hipotekario prozedura guztiak bertan behera utzi eta etxegabetuak izan diren familiei etxea itzuli behar zaie, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

IRPHaren ALDAERA GUZTIAK BERTAN BEHERA UTZI ETA KOBRATURIKOAK ITZULTZEA

IRPHaren aldaera guztiak manipulagarriak eta ondorioz abusuzkoak direla frogatuta dago jadanik. Kutxabankek IRPH Entidades aldaera aplikatzeari utzi behar dio, eta IRPH aldaera guztiekin kobraturiko diru guztia itzuli, atzerako eraginez. IRPHa aplikatzeagatik zigortzen duten epai guztiei helegitea jartzea dirua alferrik xahutzea eta abusua eta bidegabekeria luzatzeko amarruak besterik ez dira.

ABUSUZKO KLAUSULA GUZTIAK BERTAN BEHERA UZTEA

Kutxabanken etxebizitza-maileguen kontratuek abusuzko klausula mordoa dituzte, eta epaitegiek askotan zigortu dute jadanik. Klausula hauek aplikatzeari utzi eta kalteturiko familiei bidegabe kobraturiko guztiak itzultzea exijitzen dugu.

Azpimarratzeko kasu bat hauxe da: maileguaren kuota ordaintzean atzeratzen direnei Kutxabankek automatikoki kobratzen dien posizio zordunen erreklamazio komisioa (30 eurokoa izan ohi dena) eta %17tik gorako atzeratze-interesak. Biak ere egoerarik eskasenetan dauden familiak pairatzen dituzte batik bat. Eta biak ere abusuzkoak direlako baliogabetuak izan dira epai askotan, eta baliogabetze hauek bigarren instantzian baieztatuak izan dira jadanik. Kutxabankek horiek aplikatzeari utzi behar dio eta kobraturiko dirua itzuli bere bezero guztiei, salaketa jarri dutenei itzuli beharko dien modu berean. Ez itzazue familiak bidegabe kobratu zaien dirua berreskuratu ahal izateko epaitegietara jotzera derrigortu.

el propio decreto ley establece que las entidades pueden aplicar el Código a cualquier deudor y también mejorar las previsiones contenidas en el mismo.

Exigimos que Kutxabank adopte un Código de Buenas Prácticas realmente eficaz, que brinde una segunda oportunidad a los deudores de buena fe. Todas las solicitudes de dación en pago, con o sin alquiler social, carencias, quitas, y reestructuraciones de deuda que hayan sido registradas por afectados (sean o no miembros de nuestras plataformas), todas las solicitudes ya denegadas, y las que se registren en el futuro, han de ser tramitadas y aceptadas para los deudores de buena fe.

Además, todos los procedimientos de ejecución hipotecaria iniciados en los Juzgados deben ser cancelados y devueltas las viviendas a todas las familias desahuciadas por Kutxabank, dentro y fuera de Euskal Herria.

ANULACIÓN DE TODAS LAS VARIEDADES DE IRPH Y DEVOLUCIÓN DE LAS CANTIDADES COBRADAS

Ha quedado suficientemente probado que los índices IRPH son manipulables, y por tanto abusivos. Exigimos que Kutxabank deje de aplicar la variedad IRPH Entidades y devuelva con carácter retroactivo todos los intereses cobrados con todas las variedades de IRPH. Los recursos que Kutxabank está interponiendo a todas las condenas por aplicación de IRPH son un despilfarro de recursos y una maniobra dilatoria que pretende prolongar el abuso y la injusticia.

ANULACIÓN DE TODAS LAS CLÁUSULAS ABUSIVAS

Los contratos hipotecarios de Kutxabank están plagados de cláusulas abusivas, y las condenas judiciales son continuas. Exigimos que se cese en la aplicación de estas cláusulas y se devuelvan las cantidades indebidamente cobradas a las familias afectadas.

Casos destacables son el de la comisión de reclamación de posiciones deudoras (que suele ser de 30 euros) y el de los intereses de demora superiores al 17% que Kutxabank aplica en caso de retraso en el pago de la cuota hipotecaria, y que afectan por tanto a las familias más desfavorecidas. Ambas cláusulas han sido anuladas mediante sentencias que han sido ratificadas en segunda instancia. Exigimos que Kutxabank cese en su aplicación y proceda a

KUTXABANKen KUDEAKETA, KANPO-IKUSKARITZA

Kutxabanken egon daitezkeen *Cabieces kasu guztiak* argitzea exijitzen dugu. Gure kontura eta *idatzi gabeko akordioei* esker zilegitasunik gabe dirua zenbat jendek irabazi duen jakin nahi dugu. Kanpo-ikuskaritza bat ezinbestekoa da. Ez dugu dagoeneko berandu denean ikerketa komisiorik abiatzea nahi, Nafarroan CAN-en espoliazioarekin gertatu den bezala.

Gainera, Kutxabanken presidenteak egunero 2.000 eurotik gora irabaztea nazkagarria da, eta berehala zuzendu behar da. Antzeko kopuruengatik etxegabetze prozedurak hasi ohi ditu Kutxabankek.

KUTXABANK PUBLIKOA ETA KONTROL PUBLIKO ETA SOZIALAREKIN

Kutxabank pribatizatzeko bidean egin diren urratsak desegin behar dira. Egungo banku-fundazioen eredua onartezina da, eta berehala desagertu eta pribatizazioa eta kapital pribatuaren sarrera ekidin eta kontrol publiko eta soziala bermatuko duen beste modelo bat behar da.

Nahitaezko neurri hauek berehala aplikatuak izango direlakoan,

Adeitasunez,

devolver las cantidades cobradas a todos sus clientes, tal y como le ha condenado la justicia en los casos que han sido llevados a tribunales. No obliguen a las familias a interponer más demandas judiciales para recuperar lo que injustamente se les ha cobrado.

GESTIÓN DE KUTXABANK, AUDITORÍA EXTERNA

Exigimos que se esclarezcan *todos los casos Cabieces* que pueda haber en Kutxabank. Queremos saber cuánta gente se ha lucrado y se sigue lucrando de manera ilegítima gracias a *acuerdos no escritos* y a costa de la sociedad. Una auditoría externa es indispensable. No queremos comisiones de investigación cuando ya sea demasiado tarde, como ha ocurrido en Nafarroa con el expolio de la CAN.

Además, que el Presidente de Kutxabank cobre en un sólo día más de 2.000 euros, una cantidad por la cual se inician procesos de ejecución hipotecaria, es realmente obsceno y debe ser corregido con urgencia.

KUTXABANK PÚBLICA Y BAJO CONTROL PÚBLICO Y SOCIAL

Los pasos dados para privatizar Kutxabank se deben revertir. El modelo de fundaciones bancarias actual no es aceptable, y exigimos su liquidación inmediata adoptando otras formas que impidan la privatización y la entrada de capital privado y que garanticen un control público y social.

A la espera de que estas exigencias sean consideradas de manera urgente,

Atentamente,

Kaleratzeak Stop Desahucios Araba (stopdesahucios.gasteiz@gmail.com)
Kaleratzeak Stop Desahucios Gipuzkoa (stopdesahucios@plazan.net)
Kaleratzeak Stop Desahucios Bizkaia (info@kaleratzerikez.net)
IRPH Stop Gipuzkoa (irphstop@gmail.com)